

Jose Luis Elorza

PSE-EEKO KIDEA

Politikaren gainbehera (Gipuzkoa eta Nafarroa)

Gaurtik ikusita, ez dirudi –alderdi bakoitzaren emaitzen arabera– PNV-EA koalizioa haustea erabaki zuzena izan zenik. EAKoek ikaragarritzko liskarra eduki dute alderdian gai honi buruz: zuzendaritza nazionala koalizioa apurtzearen alde, Gipuzkoako zuzendaritza kontra. Kongresu berezia egin behar izan dute hau erabakitzeko eta kongresuan zuzendaritza nazionalak irabazi zuen: koalizioa hautsi egin behar zen eta alderdi bakoitza bakarrik aurkeztu behar zen hautesleen aurrean. Emaitza jakina da: Euskadin EAren emaitzak penagarriak Gipuzkoan ezik, Gipuzkoan nahiko onak. Koalizioa apurtzearen aldekoek zigor nabarmena jaso dute eta koalizioaren aldekoek emaitza txukunak atera dituzte. Emaitza horiekin, zer egin Gipuzkoan? Ikusita PNVk Gipuzkoan jasotako zigorra, Iñaki Galdos prest zegoen Miguel Buen sozialistarekin akordioa gauzatzeko eta Gipuzkoako Diputazioaren gobernua elkarrekin osatzeko. Baina –beti dago *bainaren* bat– euskal politikan, horrelako akordio batek arriskuan jarri zezakeen Lakuako hiruko gobernua, baita sostengatzen duen oreka jokoa ere, eta hau gai potoloetan sartzea da. Ondorioa, paradoxa baten antza handia du, PNV-EA koalizioa apurtzeko apustua egin zutenek ikaragarritzko presioak egin dizkiote Galdoseri PNVrekin akordioa adosteko Gipuzkoan.



DANI BLANCO



Nafarroan negoziaketan emaitzak ikusita, kutsatutako ke ilun baten aztarnak nabariak dira. Zer egin behar du orain PSNk?



Eta Nafarroan? Zer kalifikatibo erabili hango deskribatzeko? Hauteskundeetan erabakitzen zen gai nagusia hauxe zen: Sanz kapaz izango zen gehiengo absolutua berritzeko UPN-CDN koalizioarentzat edo ez. Eta bigarren mailan, indar politiko bakoitzaren indarra ikustea hauteskundeen epaia pasa ondoren. Emaitzak oso garbiak izan dira lehenengo gaian, Sanzek ezin izan du gehiengo absolutua berri. Bigarren gaian sorpresa inportantea: PSN bigarren indar politikoa izan beharren, hirugarren indarra da orain eta bere tokia NaBai koalizioak bereganatu du. PSNren apustua UPN gobernutik botatzea zen eta gobernu alternatiboa burutzea. Gobernu alternatibo hau gauzatzeko, nahitaez, zenbakiak lagunduz gero behintzat, PSNkoak behartuta zeuden NaBai koalizioarekin akordio batera iristea, bestela garbi zegoen gobernu alternatiboa saltzea kea besterik ez zela. Bada, negoziaketan emaitzak ikusita kutsatutako ke ilun baten aztarnak nabariak dira. Zer egin behar du orain PSNk? Hauteskunde berriak ez dira izango seguru asko, baina izango balira zer eskaini lezake PSNk? UPNren gobernu alternatiboa egiteko PSNkoek beren amets beroetan ere ez dute gehiengo absoluturik lortuko, nahitaez, akordioetara iritsi behar dira. Baina zeinekin adostu behar dute gobernu alternatiboa NaBairekin ez bada? Eta oraingoan gai ez badira izan akordioa egiteko, hauteskunde berrietan zer eskaini dezakete? ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zaizkigu jada denboraldiaurreko prestakuntza berezian. Bolumena oinarri, intentsitatea xede. Baina klubak biziarzten dutena ez da soilik kirola. Espainiako ligan aspaldikoak dira bestelako diru sarrerak, bazkide eta zaleen iturrietatik aparte lortzen direnak. Jokalarien salerosketaz gain, afera inmobiliarioak dira izarrak, zuzendaritzak berotzen dituztenak. 2005-2006koan ehunetik gorako milioi euro dira denen artean deklaraturako mozkinak, mila eta hirurehun bat milioi euro erabilita. Baina klubak artean ere klaseak egon badaude. Europako lehiaketetan parte hartu dutenen artean –Barça, Real Madrid, Valencia, Osasuna

Hasiak

eta Sevillaren artean –%90 lortu zuten. Baina diru sarrera handienak lurren erosketak eta salmenten artean lortzen direnak ditugu. Merke erosi, birkalifikatu eta berriz saldu. Horretarako gobernuen konplizitatea da ezinbestekoa. Eta adibide eskandalagarriak ez dira falta. Valencia, Zaragoza eta Atletico de Madrid eredugarrienak. Real Madrid eta Barça dituzten diru sarrera finkoak, elastikoen eta gainerako salmentaz gain telebisten eskubideak bereziki besteek ez dituztenek, holako finantzabideak bilatu behar dituzte maila berean lehiatuko badira. Eta zelaian txukun ibili ezker gaitzerdi, oro estaltzen baitute garaipenek. Hauek ezean zorra etxean, eta zale suharra berme. ■